

1975

47/2007 DEKRETUA, martxoaren 20koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Estatistika Organo Berezia sortzen duena eta bere antolamendu eta funtzionamendua ezartzen dituen.

Euskadiko Autonomia-Elkartearen Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak 26. artikuluan xedatzen duenez, bere baitan estatistikarako berariazko jardute-organo bat eratuta daukaten Jaurlaritzako sailek, lege horretan aurreikusitako moduan, egikaritu egingo dute Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikari buruzko jarduna, eta horrela, Autonomia Erkidegoko Estatistika Erakundearen zati bilakatuko dira. Era berean, lege beraren 27. artikulua araberan, berariazko estatistika-organoak euren berezko araudiaren arabera arautuko direla dio.

Jaurlaritzaren sailtako estatistika-organoak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak garatu egiten ditu arestian aipatutako lege horretan jasotako aurreikuspenak, sailtako estatistika-organo horien sortuntza, antolaketa eta funtzionamenduari dagokionez.

180/1993 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak ezartzen duenez, gainera, Jaurlaritzako sailek, Estatistikako Euskal Planean edo estatistikako urteko programetan sailenak balira bezala sartutako estatistikak eta ekintzak egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da dagokion estatistika-organo berezia izatea.

Estatistiken arloan sortutako beharrek, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren jardute-esparrua eratzten duten sektoreei dagozkienek, bere antolamendu-egituran sartutako organo bat sortzea aholkatu eta beharrezko egiten dute, eta haren erlazioak eta funtzionamendua estatistikaren legeriak arautu, babestu eta mugatzea, bereziki sekretu estatistikoari dagokionez.

Horrenbestez, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak proposaturik, Euskal Estatistika Batzordeak txostena egin ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko martxoaren 20an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen bidez, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Estatistika Organo Berezia sortzen da, eta bere antolamendu eta funtzionamendua ezartzen da, Jaurlaritzako Sailen Estatistikarako Organo Berezia arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuaren aginduen arabera.

1975

DECRETO 47/2007, de 20 de marzo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, y se establece su organización y funcionamiento.

La Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone en su artículo 26 que aquellos Departamentos del Gobierno que tuvieran constituido en su seno un órgano estadístico específico llevarán a cabo, en los términos previstos en dicha Ley, la actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conformándose de esta manera en una parte integrante de la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma. A su vez, el artículo 27 del mismo texto legal remite la regulación de los órganos estadísticos específicos a su normativa propia.

El Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos de los Departamentos del Gobierno, desarrolla las previsiones contempladas en la precitada Ley en cuanto a la creación, organización y funcionamiento de dichos órganos estadísticos departamentales.

La Disposición Adicional Primera del Decreto 180/1993 establece, además, que para que los Departamentos del Gobierno puedan realizar las estadísticas y actuaciones incluidas como propias de ellos en el Plan Vasco de Estadística o en los Programas Estadísticos Anuales, será requisito indispensable que los mismos dispongan del correspondiente Órgano Estadístico Específico.

Las necesidades generadas en el orden estadístico, referidas a los sectores que constituyen el área de actuación del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio aconsejan y hacen necesaria la creación de un órgano integrado en su estructura organizativa, cuyas relaciones y funcionamiento esté regulado, protegido y limitado por la legislación estadística, especialmente en lo referido al secreto estadístico.

En su virtud a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, previo informe de la Euskal Estatistika Batzordea / Comisión Vasca de Estadística, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de marzo de 2007,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Mediante el presente Decreto se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, y se establece su organización y funcionamiento, de conformidad con las prescripciones del Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno.

2. artikulua.– Mendekotasuna.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Estatistika Organo Berezia pertsona bakarreko organoa da, eta Zerbitzu zuzendariaren mende dago zuzenean.

3. artikulua.– Eskumenak.

1.– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Estatistika Organo Berezia, eskumenei dagokienez, I. motakoa da. Hori dela eta, mota horretako estatistika-organo bereziei 180/1993 Dekretuak esleitzen dizkien eskumenak izango ditu, eta dekretuak ezarritako ahalmenak erabiliko ditu. Zehazki, honako hauek:

a) Euskal Estatistika Planaren Proiektuaren oinarri izango den Sailaren Estatistika Plana egitea.

b) Euskal Estatistika Erakundearekin lankidetzan jardutea, Euskal Estatistika Plana eta urteko estatistika-programak egitean.

c) Urteko estatistika-programetan dauden estatistikak edo haien fase batzuk egitea, bertan zehazten den eran.

d) Euskal Estatistika Planean eta urteko estatistika-programetan ez dauden saileko bertako estatistikak egitea, apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 8.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

e) Artikulu honen c) eta d) idatz-zatietatik eratorritako funtzio estatistikoen ondorioz beste erakunde batzuekin harremana izatea, betiere 4/1986 Legearen 29. artikuluko c) eta d) idatz-zatietan ezarritakoa betez.

f) Bere eskumeneko estatistikak egiteko informazioa lortzea, 4/1986 Legearen 9 eta 16. artikuluetan adierazitako eran.

g) Artikulu honen d) idatz-zatian aipatutako estatistiken emaitzak argitaratu eta zabaltzea, bai eta urteko estatistika-programetan zehazten direnak ere, beren edukiaren berri Euskal Estatistika Erakundeari eman ondoren.

h) Bere arloari dagokion esparruko estatistika-fitxategi direktorioak egin eta eguneratzen esku hartzea, 4/1986 Legearen 29.i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

i) Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren aldetik interesgarritzat jotzen diren proiektuak egitea, bereziki zerbitzuak, ikerketak eta arlo nahiz azpi-arlo mailako edozein azterketa, 180/1993 Dekretuaren 7.2 artikulua ezarritako moduan.

2.– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Estatistika Organo Bereziak bere eskumenak erabiliko ditu, bai sail horretako estatistika-beharrei dagokienez eta bai berari atxikitako erakundeenei dagokienez, eta

Artículo 2.– Dependencia.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio es un órgano unipersonal que depende directamente de la Directora de Servicios.

Artículo 3.– Competencias.

1.– El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Medio Ambiente se configura, a efectos de sus competencias, como de la clase I. En su virtud, ostentará las competencias y ejercerá las facultades que a los órganos Estadísticos Específicos de dicha clase atribuye el Decreto 180/1993, y en concreto las siguientes:

a) Elaboración del Plan Estadístico Departamental que sirva de base al Proyecto del Plan Vasco de Estadística.

b) Colaboración con el Euskal Estadística Erakundea / Instituto Vasco de Estadística en la elaboración del Plan Vasco de Estadística y de los Programas Estadísticos Anuales.

c) Elaboración de aquellas estadísticas, o fases de ellas, incluidas en los Programas Estadísticos Anuales, en los términos que en los mismos se determinen.

d) Elaboración de estadísticas propias, no incluidas en el Plan Vasco de Estadística ni en los Programas Estadísticos Anuales, en los términos previstos en el artículo 8.1 de la Ley 4/1986, de 23 de abril.

e) Relación con otros organismos como consecuencia de las funciones estadísticas derivadas de los apartados c) y d) de este artículo, observando en todo caso lo establecido en el artículo 29.c) y d) de la Ley 4/1986.

f) Obtención de información para la realización de las estadísticas de su competencia, en los términos expresados en los artículos 9 a 16 de la Ley 4/1986.

g) Publicación y difusión de los resultados de las estadísticas referidas en el apartado d) de este artículo, así como de las que se determinen en los Programas Estadísticos Anuales, previa comunicación de su contenido al Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

h) Participar en la elaboración y actualización de los Ficheros Directorios estadísticos de su ámbito sectorial, según lo previsto en el artículo 29.i) de la Ley 4/1986.

i) Realización de los proyectos que se consideren de interés por parte del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, especialmente servicios, estudios y análisis de tipo sectorial y subsectorial, en el marco establecido por el artículo 7.2 del Decreto 180/1993.

2.– El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio ejercerá sus competencias tanto respecto a las necesidades estadísticas de dicho Departamento como de los

estatistikak datu estatistiko edo datu administratiboetatik abiatuta egingo diren kontuan hartu gabe.

4. artikulua.– Informazioa bidaltzea eta lankidetzaz.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Estatistika Organo Bereziak errespetatu egingo ditu aitpatutako saileko zuzendaritzetarako estatistikek eragiten dieten gaien gainean legez esleitu zaizkien eskumenak. Zuzendaritza horiek informazio egokia emango diete datu estatistikoen gainean beraiei dagozkien gaietan, eta lankidetzan jardungo dute organo horrekin beren zuzendaritzarekin loturiko ikerketa orokorrak diseinatzen eta lantzen.

5. artikulua.– Funtzionamendua.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Estatistika Organo Bereziak, 180/1993 Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako Estatistikarako Organo Berezien Erregistroan erregistratu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari dagokion jarduna beteko du, eta estatistiken inguruko legeria beteko du, bere sailari dagozkion edo hari atxikita dauden beste organo eta erakunde batzuekin izango dituen harremanetan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari ahalmena eman zaio dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta egikaritzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.– Dekretu honek indarra izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko martxoaren 20an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta Lurralde
Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

entes institucionales que el mismo tenga adscritos y con independencia de que las estadísticas hayan de elaborarse a partir de datos estadísticos o de datos administrativos.

Artículo 4.– Remisión de información y colaboración.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio respetará las competencias legalmente atribuidas a las diferentes Direcciones del citado Departamento sobre las materias afectadas por las estadísticas. Las citadas Direcciones le suministrarán la información pertinente sobre datos estadísticos en las materias que les sean propias y colaborarán con dicho Órgano en el diseño y elaboración de estudios generales relacionados con su Dirección.

Artículo 5.– Funcionamiento.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, una vez inscrito en el Registro de Órganos Estadísticos Específicos previsto en el artículo 4 del Decreto 180/1993, ejercerá su actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi actuando con observancia de la legislación estadística, en las relaciones que mantenga con otros órganos y Entes, incluidos los pertenecientes o adscritos a su Departamento.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta a la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de lo establecido en el presente Decreto.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de marzo de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio.
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.